

25

KANTA EDER

(Maitetasuna)

LABAYRU IKASTEGIA

BILBAO

2005

© Labayru Ikastegia
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Gestingraf, S.A.L.

Lege Gordailua: BI-3176-05
ISBN: 84-89816-17-4

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimen barik.

Aurkibidea

Berbaurrekoa	7
Adios, izar ederra	9
Amets gozotan	10
Anttoni ta Antton	11
Argizagi ederra	12
Begi urdin	13
Behin batian Loiolan	14
Dama gazte xarmant bat	15
Ene maitia, xarmengarria	17
Goizian goiz	18
Kontxesiri	19
Lili eder bat	22
Maitatzen zaitudalako	23
Maitia nun zira?	24
Maitiak galdegin zautan	25
Maria Solt ta Kastero	26
Mundüan malerusik	27
Nere herriko neskatxa maite	28
Nere maitearentzat	29
Nere ongile maiteari	30
Neskatxa ederra	31
Prima eijerra	32
Solora ninoala	33
Triste bizi naiz eta	34
Xarmengarria zira	35
Zugana Manuela	36
Iturriak	37

Berbaurrekoa

Euskal kulturak dituan birtuteen artean, aitatzekoa da, duda barik, tradizinozko kanten altxorra. Nork ez dau bere lagunakaz kantaren bat bota, bazkari edo afari baten ostean? Ohikoa da, oraindino be, Euskal Herriko kaleetatik lagun taldeak kantuan ikustea. Ezin da ukatu herri kantuzale baten bizi garala, eta hori argi eta garbi ikusten da edozein tabernatara edota alkartetara joanda. Beraz, zalantza barik esan geinke kantetea Euskal Herriko kultura eta tradizinoaren txatal garrantzitsua dana.

Horregaitik guztiagaitik, kantutegi honetan maitetasunezko kantarik ederrenak aukeratzen ahalegindu gara. Kantuen aukeraketa hori egitea ez da zeregin erraza suertau. Ez dogu kanta lar sartu gura izan. Gure asmoa liburutxo erabilgarria egitea izan da, edozein lekutara eroan ahal izateko edota irakaskuntzan erabilteko, eta horrek hainbat eta hainbat kanta eder kanpoan ixten behartu gaitu.

Honetan, 25 kanta aurkezten doguz. Kantuok maitetasunaren gainekoak dira, eta kanteagaz batera partitorea topauko dozu. Holan, abestiaren musikea ez badakizu, hemen dozu ikasteko aukerea.

25 kanta eder liburuxka honetan, lehen esan dogun moduan, maitetasuna aukeratu dogu gai lez. Hemendik aurrera kantutegi tematikoa osotu gurako geunke, beste gai batzuetan barneratuz.

Hau guztiau dala-ta, orain zure eskuetan dago kantutegia erabiltea eta kantek daukien erakertasuna topetea.

Idoia Alzibar
Labayru Ikastegikoa

Adios izar ederra

Adios izar ederra, adios izarra!
Zu zare Aingerua munduan bakarra!
Aingeruekin
aingeruekinzaitut konparatzen,
zenbat maite zaitudan ez duzu pentsatzen!

Adios, izar ederra, eta karioa,
neure begietako lili arraroa!
bihotzez zurekin eta gorputzez banua,
jarraikiren zautazu zure amodiua.

Izan naiz Aragoan bai eta Kastilloan
hitz batez erraiteko Espaiña guzian;
ez dut ikusi
ez dut ikusi zu bezalakorik,
Nafarroa guzian zaude famaturik.

Jarraikitzen ninduzun izar eder hari
nola mariñel ona bere orratzari.
Jende onak atenzione ene arrazoin honi:
ez zitezte fida amodioari.

Amodioa duzu arrosaren pare
usaina badu eta ondoan arantze;
maitea, ni ez nainte egon zugana jin gabe
hil behar banu ere hirur egun gabe!

Herrikoia

Voice



A - di - os, i - zar e - derra, a - di - os i - za - rra! Zu - za - re Ain - ge - ru - a
mun - du - an ba - ka - rra! Ain - ge - ru - e - kin ain - ge - ru - e - kin zai - tut kon - pa - ra - tzen,
zen - bat mai - te zai - tu - dan ez du - zu pen - tsa - tzen!

Amets gozotan

Amets gozotan gabero
zakuskit pozik oin zuri.
Ahuspez hurbiltzen nauzu
gero gau on erranez nik zuri.
Urre adats hori hegaz duzula
dantzut hitz baten durundi.

Lili beilegi txorta bat
zuk eskainita ni nitzar.
Eskua zabal dudalarik,
ezin dezaket deus har.
Itsutu zaizkit eder hori,
hizñoa ere ahantzi zait.

Herrikoia

Voice



A - mets go - zo - tan ga - be - ro za - kus - kit po - zik oin zu - ri.

Ahus - pez hur - bil - tzen nau - zu ge - ro gau on e - rra - nez nik zu - ri. U - rre - a

dats ho - ri he - gaz du - zu - la dan - tzut hitz ba - ten du - run - di.

Anttoni ta Antton

—Anttoni, Anttoni!
Zure atean nago ni.
—Ai Antton, ai Antton!
Ate ondoan, hor konpon.

—Hormatxoriak negu gorrian
ez du atsegin elurra:
zerua goibel, kabia hotza
ta janari gabe lurra.
Ai, maite, nire bihotzak duen
zure hotzaren beldurra!
Biontzat kabi bat berotzeko
bilduko nuke egurra.

—Anttoni, Anttoni!
Zure atean nago ni.
—Ai Antton, ai Antton!
Ate ondoan, hor konpon.

—Enarak ez du behin egindako
kabarik inoiz aldatzen:
urtero beti kabi haretan
umeak ditu bazkatzen.
Baina zu, Antton, enara txarra
zaitut niretzat bilatzen;
jai bakoitzean nexka berria
ikusten zaitut maitatzen.

—Anttoni, Anttoni!
kalabaza zale ez naiz ni.
— Ai Antton, ai Antton!
Haize freskoari gabon!

Herrikoia

Voice

An - tto - ni! An - tto - ni! zu - re a - te - an na - go
ni. Ai An - tton! Ai An - tton! a - te on - do - an hor - kon -
pon. An - tto Hor - ma - txu - ri - ak ne - gu go - ri - an ez du a -
tse - gin e - lu - rra ze - ru - a goi - bel ka - bi - a ho - tza ta ja - na -
ri ga - be lu - rra Ai mai - te ne - re bi - ho - tzak du - en zu - re ho -
tza - ren bel - du - rra! Bi - on - tzat ka - bi bat be - ro tze - ko bil - du - ko
nu - ke e - - gu - na.

Argizagi ederra

Argizagi ederra,
argi egidazu;
oraino bide luzean
joan beharra nuzu.
Maitea nahi nikezu
gaur behin mintzatu;
haren bortaragino
argi egidazu.

Urrundanik heldu naiz
bide luze huntan
urrats pausu guzietz
bethi pentsaketan.
Atorra bustia dut
bular errainetan;
plazer bazindait idor
zure sahets hortan.

Herrikoia

Voice

Ar - gi - za - gi _ e - de - rra, ar - gi e - gi - da - zu; o - rai - no bi - de lu -
ze - an jo - an be - har nu - zu. Mai - tea na - hi _ ni - ke - zu gaur be - hin min - tza - tu; ha -
ren bor - ta - ra - gi - no ar - gi e - gi _ da - zu. _____

The musical score is written on three staves in a single system. The first staff is labeled 'Voice' and begins with a treble clef, a key signature of two flats (B-flat and E-flat), and a 6/8 time signature. The melody consists of eighth and quarter notes. The lyrics are written below the notes, with hyphens indicating syllables that span across notes. The second and third staves continue the melody and lyrics. The third staff ends with a double bar line.

Begi urdin

Begi urdin, bilo hori zoragarria;
gorputz ttiki, gerri polit, paregabea;
elhurra bezain xuri da zure larrua,
arrosa bezain gorri begi bitartea:
zoraturik deraukazu mundu guzia
Ez ote zait zilhegi zuri erraitea?

—Jinen niza, bai ala ez, zure ikustera?
—Bai jiten al zira hunat, ene maitea.
—Zurekin nahi nuke ereman bizia,
nere izerdiz egin zuretzat ogia.
—Zato fite, leia zite, zu zaitut nere;
nihola ere ni ez nauke zu ikusi gabe.

Herrikoia

Voice



The musical score is written on three staves in G major (one sharp) and 2/4 time. The melody is simple and folk-like, with lyrics written below the notes. The lyrics are: Be-gi ur-din, bi-lo-ho-ri zo-ra-ga-ri-a; gor-putz tti-ki, ge-ri po-lit, pa-re-ga-be-a; e-lhu-ria bezain xu-ri da zu-re lar-ru-a, a-rro-sa bezain go-mi be-gi bi-tar-te-a; zo-ra-tu-rik de-rau-ka-zu mun-du gu-zi-a Ez o-te zait zi-lhe-gi-zu-ri e-rai-te-a.

Be-gi ur-din, bi-lo-ho-ri zo-ra-ga-ri-a; gor-putz tti-ki, ge-ri po-lit, pa-re-ga-be-

a; e-lhu-ria bezain xu-ri da zu-re lar-ru-a, a-rro-sa bezain go-mi be-gi bi-tar-te-a;

zo-ra-tu-rik de-rau-ka-zu mun-du gu-zi-a Ez o-te zait zi-lhe-gi-zu-ri e-rai-te-a.

Behin batian Loiolan

Behin batian, Loiolan,
erronomia zan.
Hantxe ikusi nuen
neskatxa bat plazan:
txoria baino ere
arinago dantzan;
huraxe bai polita,
han politik bazan!

Esan nion desio
senti nuen gisan,
harekin hizketa bat
nahi nuela izan;
erantzun zidan ezik
atsegin har nezan
adituko zidala
zer nahi nion esan.

Aurkitu ginanian
inor gabe jiran,
koloriak gorritu
arazi zizkidan,
kontatuko dizuet
guztia segidan,
zer esan nion eta
nola erantzun zidan.

—Dama polita zara
polita guztiz, ai!
Baina hala ere zaude
oraindik ezkongai.
Ezkon gaitezen biok!
Esan zaidazu bai!
—Ni zurekin ezkondu?
Ni zurekin? Jai, jai!

Bilintx

Voice

Behin ba - ti - an Lo - io - lan e - rro - me - ri - a zan han - txe i - ku - si

6 nu - en nes - ka - txa bat pla - zan. zan. Txo - ri - a bai - no e - re

12 a - ri - na - go dan - tzan hu - ra - xe bai - po - li - ta han - po - li - tik ba - zan.

18 Txo - ri - a bai - no e - re a - ri - na - go dan - tzan hu - ra - xe bai po - li - ta

24 han po - - li - tik ba - zan.

Dama gazte xarmant bat

Dama gazte xarmat bat jiten zaut bixtara,
iduritzen baitzeraut zeruko izarra!
Ama batek hazteko, hori zerbait bada;
gure salbatzaileak kontserba dezala!
Trala, tralara, tralara, kontserba dezala.

—Gau on gizon gaztea, konpaniarekin!
Costu du egotiak ixtant bat zurekin
Badakizu mintzatzan errespetuarekin,
Jainkoak har zitzala hil ondoan berekin!
Trala, tralara, tralara, hil ondoan berekin!

—Ene maite polita non othe den bizi,
bazinakikeia zuk haren zerbait berri?
Aspaldi ikustera joan nahia bethi...
errozu ene partez, milaka goraintzi.
Trala, tralara, tralara, milaka goraintzi.

—Ez zinuekeia hobe zuhaurrek joaitea,
nitaz igorri gabe komisionea?
Samurturen ote den ez zaitela fida;
zatoz enekin eta, biak joanen gira.
Trala, tralara, tralara, biak joanen gira.

—Jin ere banindaite zurekin gogotik,
ez banu bihotzian deus errangurarik:
kanbiatua dela norbaitek erranik,
hortako ez naiz joaiten, deus ez dut bertzerik.
Trala, tralara, tralara, deus ez dut bertzerik.

—Zato enekin eta errozu berari
leheneko hitzetan dagoenez beti?
Disimulatzen badu, utzazu laburzki,
ni hemen izanen naiz zure zerbitzari.
Trala, tralara, tralara, zure zerbitzari.

Herrikoia

Voice 
Da - ma gaz-te xar-mant bat ji-ten zaut bix - ta - ra i - du - ri - tzen bai-tze-



raut ze-ru-ko i - za-rral A-ma ba-tek haz - te - ko, ho-ri zer-bait ba - da;



gu-re sal-ba - tzai - le - ak kon-tser-ba de - za - la. tra-la, tra-la - ra, tra-la-ra kon-tser-ba de - za -



la.

Ene maitia, xarmengarria

Ene maitia, xarmengarria,
dohain ederrez zirela bethea.
Zuk egin afrontua sarthu zait bihotzera,
heldu baitzait gogora, ardura.
Nik orai pena, zure malura
denborak emanen du agertzera.

Xoratu nauzu, tronpatu nauzu,
ene bihotza eritu dautazu.
Denborak beharko du ene pena kasatu
Bihotz alegeratu, sendatu.
Hobe bat ustez, nauzu kitatu,
zure malura hortan egin duzu.

Zuk kitaturik xangrinaturik
bi urthe egotu naiz pasaturik:
ene bihotz tendrea, nihor maite gabarik
ez zagoken bakharrik, tristerik;
maite berri bat du hautaturik
hark ezarri nau alegeraturik.

Adio enea, lehen maitea,
desir onez dut bihotza bethea.
Zuk egin afrontua aspaldi barkhatua
desir dautzut, gaizoa, zerua;
munduan ere bizi luzea
eginik zure gostuko maitea.

Herrikoia

Voice



E-ne mai-ti - a, xar-men-ga-ri - a, do-hain e-de - rez zi-re-la be-the - a.

Zuk e-gin a - fron-tu-a sar-thu zait bi - ho-tze-ra, hel-du bai-tzait go-go-ra, ar-du-ra.

Nik o-rai pe - na, zu-re ma-lu - ra den-bo-rak e - ma-nen du a - ger-tze - ra. ___

Goizian goiz

Goizian goiz jeikirik argia gaberik
urera joan ninduzun pegarra harturik.
Traleralala...

Jaun txapeldun gazte bat jin zautan ondotik.
Heia nahi nuenez urera lagunik?

Nik ez nuela nahi urera lagunik,
aita beha zagola salako leihotik.

Aita beha zagola, ezetz errangatik,
pegarra joan zerautan besotik harturik.

Urera ginenian, biak buruz buru
galdegin zautan ere: —Zonbat urthe duzu?

—Hamasei, hamazazpi orain ez konplitu:
zurekin ezkontzeko gaztexegi nuzu.

—Ettxerat itzultzeko, nik dudan beldurra!
Ez jakin nola pentsa amari gezurra!

—Neskatxa, nahi duzu nik erakuts zuri
etxerat ethortzean zer erran amari?...

—Urzo xuri polit bat, gabaz dabilana,
hark ura zikindurik, egotu naiz ama!

—Dakigunaz geroztik zer erran amari,
dugun pegarra pausa, gaitezen liberti.

Herrikoia

Voice

The image shows two staves of musical notation for the song 'Goizian goiz'. The first staff is labeled 'Voice' and is in G major (one sharp) and 6/8 time. It contains the melody for the first line of lyrics: 'Goi - zi - an goiz jei - ki - rik ar - gi - a ga - be - rik, u - re - ra jo - an nin - du -'. The second staff continues the melody for the second line of lyrics: 'zun pe - ga - rra har - tu - rik. Tra - le - ra - la - la.' The lyrics are written below the notes.

Goi - zi - an goiz jei - ki - rik ar - gi - a ga - be - rik, u - re - ra jo - an nin - du -
zun pe - ga - rra har - tu - rik. Tra - le - ra - la - la.

Kontxesiri

Maite bat maitatzen det, maitagarria.
Begi ederra du ta guztiz argia.
Daukat urruti,
bainan ezin kendu det burutik
haren itxura,
saldu ahal baliteke pisura,
urrearen truke
nork erosi faltako ez luke!

Hogeita lau leguaz nago aparte,
bitartean badauzkat miloi bat ate,
guztiak itxirik.
Nahi arren, ezin egon isilik:
beti negarrez,
nere maite-maitearen galdez,
ote dan bizi
bihotz-bihotz nereko Kontxesi!

Egunaz argi gutxi, gauean ilun,
kontsuelorik ez da neretzat inun,
maitea gabe,
egin ote nadin haren jabe
oroituzean,
zenbat pena nere bihotzean
ditut igaro!
maite maite det, ez da milagro!

Ai! Hau bakardadea eta tristura!
Nere bihotz gaisoa ezin piztu da,
hain dago hila!
Beti dabil kontsuelo bila,
bere artean.
Banengo maitearen aldean,
ordutxo biko...
pena guztiak lirake hilko!

Nere maitea zutaz ni oroitzen naiz,
egunaz, baita ere gauetan txit maiz.
Lotan ere bai,
zu ikustera ni joan naiz.
Libre banengo, hor nintzake egun bigarrenge
nahiz orduan hil, ez nuke izango batere min.

Lehengo gau batean egin det amets,
bainan pentsamenduak beti aldrebes
irtetzen dira.

Ustez nengoen zuri begira,
maite polita,
kofrearen gainean jarrita,
kontu kontari
ni nagoen, baina ez nintzan ari.

Maite nerea daukat beti gogoan:
ai, orain banengo ni haren alboan
inoiz bezela!
Jaunak amets hau kunpli dezala,
balitz komeni,
kotsueloz hilko nintzake ni,
nere ustean,
maitetxoren bihotza ikustean.

Nere maite polita, ez da zer etsi,
bihar ez bada ere, hor nauzu etzi,
lehengo lekuan,
ailegatutzen naizen orduan.
Ai! Hura poza
nere maite-maitetxo, bihotza,
zuri begira
pena guztiak ahaztuko dira.

Zure gauza polit bat ohi det nerekin,
izkribaturik dago letra birekin:
K eta B dira.
Askotan nago hoiei begira,
hain dira finak!
Maitetxo polita, zuk eginak
sedaz ederki,
kolkoan gorderik dauzkat beti.

Esperantzetan bizi, maite gozoa,
noizbait kunplituko da gure plazoa
eta orduan...
Gauza txarrik ez hartu buruan,
lehengoari utzi.
Ez degu pasatzen pena gutxi,
preso sei urtez,
onduko gaituzte nere ustez.

Juan Inazio Iztueta

Voice



Mai-te bat mai - ta - tzen det mai - ta - ga-ri - a. Be - gi e -

8



de - rra du ta guz - tiz ar-gi - a. Dau - kat u - rru - ti, bai - nan e -

15



zin ken-du det bu-ru - tik ha - ren i - tzu - ra, sal - du ahal ba - li - te -

22



ke pi - su - ra, u - rrea - ren tru - ke norik e-ro - si fal - ta - ko ez lu -

29



ke.

Lili eder bat

Lili eder bat badut nik
aspaldi begizaturik; (bis)
baina ez naite mentura
haren eskura hartzera,
banaki zer den lanjerra,
joan nindaiteke aldera.

Lili eder bat so egidazu:
maite nauzunez errazu. (bis)
Zure begiak barnarik
deraut kolpatu;
kolpe hortarik badizu
granganatzeko arrisku.

—Ez nuke nahi malurrik
balinbazindu nigatik; (bis)
ez dut uste ene begiek
eman dautzuten kolperik:
Ez duzu beraz lanjerrik,
ez zira hilen hortarik.

—Mintzo zirade poliki,
poliki eta tendreki. (bis)
Bisitaño bat nahi nuke egin
nik zure ganat laburzki!

Desirra badut segurki
bazinezadat permeti.

—Permeti niro, maitia,
ez dut hain bihotz dorphia; (bis)
bainan lehenik nahi dut jakin
zure desirra guzia:
zu eneganat jítiaz
ez dona laite mundia.

—Ez ahal nuzu dukia,
ez eta Aitorren semia! (bis)
Hola nehoren estonatzeko
ez da sujet bat handia;
zuhaur zirade sinplia,
opinionez bethia.

—Badakit simple nizela;
hori segurki hala da; (bis)
iduritzen zaut atsolutoki
ezagutzetan zirela;
orai nik badut fortuna;
bainan ez dut zuk emana.

Herrikoia

Voice

Li-li e-der bat ba-dut nik as-pal-di be-giz-ta-tu-rik; li-li e-der bat ba-dut
nik as-pal-di be-giz-ta-tu-rik; bai-na ez nai-te men-tu-ra ha-ren es-ku-ra har-tze-ra,
ba-na-ki zer den lan-je-rra, joan nin-dai-te-ke al-de-ra.

Maitatzen zaitudalako

Maitatzen zaitudalako
kantatzen dizut zuri.
Zu zaitut negu beltzean
eguzki epel zuri.
Sargori denean berriz
maitasunezko euri.
Maitatzen zaitudalako
kantatzen dizut zuri.

Guk elkarri zenbait kontu
eta zenbait irriño!
Iruditzen zait gerala
ilargitan bi laino.
Iruditzen zait gerala
ilargitan bi laino.
Egunez bihurtzen gera
zu ta ni bi txoriño.

Elkarri begiratuta
hasten gera kantari.
Orduan deitzen diogu
maitasun haizeari.
Orduan deitzen diogu
maitasun haizeari.
Eta horrek jartzen gaitu
firi-firi dantzari.

Kanta dezagun ba kanta
maiteño bihotzeko.
Mundura ez ginen jaio
gu triste bizitzeko.
Baizik tristura guztiak
kantuz poz bihurtzeko
Dantza dezagun ba dantza
maiteño bihotzeko!

J. Ormazabal

Voice

Mai - tatzen zai - tu - da - la - ko ___ kan - ta - tzen di - zut zu - ri. ___

___ Zu zai-tut ne-gu bel - tze - an ___ e - guz - ki e - pel zu - ri. ___

___ Sar - go-ri de - ne - an be - riz ___ mai - ta-su - nez-ko eu - ri.

Mai - tatzen zai - tu - da - la - ko ___ kan - ta - tzen di - zut zu - ri.

Maitia nun zira?

—Maitia, nun zira?

Nik etzütüt ikusten
ez berririk jakiten.

Nurat galdu zira? (*bis*)

Hala kanbiatu da zure deseña?

Hitz eman zenereitan
ez behin bai berritan,
enia zinela. (*bis*)

—Ohikua nüzü:

enüzü kanbiatu,
bihotzian beinin sartü,
eta zü maitatü.

Aita jeloskor batek dizü kausatü.
zure ikustetik,
gehiago mintzatetik
hark nüzü pribatü.

—Aita jeloskorra!

Zük alaba igorri,
arauz ene ihesi,
komentü hartara!

Agian ez ahal da sartüren serora;

fedea bedera dügü,
alkarri eman tügü,
gaiza següra da.

—Zamariz iganik,
jin zazkit ikustera,
ene konsolatzera,
aitaren ixilik.

Hogei eta lau urte bazitit beterik!
Urte baten bürian,
nik ezketek ordian
aitaren axolik.

—Alaba diener,
erranen dit orori,
so egidaziet eni,
beha ene erraner;
gaztetto direlarik untsa disziplina:
Handitü direnian,
berant date ordian,
nik badakit untsa.

Herrikoia

Voice

Mai - ti - a, nun zi - ra? Nik ez tzütüt i - kus - ten, ez be - rri - rik ja -
ki - ten. Nu - rat gal - du zi - ra? Nu - rat gal - du zi - ra? Ha - la kan - bi - a -
tu da zu - re dese - i - ña? Hitz e - man ze - ne - rei - tan, ez be - hin, bai be - ri - tan, e -
ni - a zi - ne - la, e - ni - a zi - ne - la.

Maitiak galdegin zautan

Maitiak galdegin zautan polita nintzanez (*bis*)
polit, polit nintzela bainan
larrua beltz, larrua beltz.

Maitiak galdegin zautan premu nintzanez
premu, premu nintzela bainan
etxerik ez, etxerik ez.

Maitiak galdegin zautan moltsa banuenez
moltsa, moltsa banuela bainan
dirurik ez, dirurik ez.

Maitiak galdegin zautan lanean nakienez
lanean, lanean nakiela bainan,
gogorik ez, gogorik ez.

Gaixoak hil behar dugu guk biek gosez
gosez, gosez ez naski bainan,
elgar maitez, elgar maitez!

Herrikoia

Voice

Mai-ti-ak gal-de-gin zau-tan, po-li-ta nin-tza-nez. Po-lit

po-lit nin-tze-la bai-nan, la-ru-a beltz, la-ru-a beltz.

The image shows two staves of musical notation in G major (one sharp) and 3/8 time. The first staff is labeled 'Voice' and contains the melody for the first line of lyrics. The second staff continues the melody for the second line of lyrics. The lyrics are written below the notes, with hyphens indicating syllable placement. The first staff ends with a double bar line and repeat dots, and the second staff also ends with a double bar line and repeat dots.

Maria Solt ta Kastero

Maria Solt ta Kastero
bi amoros zahar bero. (bis)
Hirurogei-hamarna urtetan hartü die amorio
Kastero jelostüz gero Maria Solt ezarri kanpo.

Maria Solta dua nigarrez
izorra dela beldurrez. (bis)
Barnets-Bordako anderiak kontsolatü du elez
emazte zaharrik oküpü agitzen eztela ez.

Maria Soltek arrapostü
—Santa Elisabet badüzü. (bis)
Saintu zahar bateganik oküpü agitü düzü
Kastero ere bada saintü, hala nizan beldür nüzü.

—Kastero ez düzü saintü
sobera bürhaüti düzü. (bis)
Elizalat juan eta taharnan egoiten düzü
Kastero denagatik saintü Maria Solt antzü zira zü.

Pierre Topet Etxaun

Voice

Ma-ri - a Solt ta Kas - te - ro bi a - mo - ros za-har be -
ro Ma-ri - a ros za - har - be - ro. hi - ru - ro - gei ha - mar - na ur -
te - tan har - tü di - e a - mo - ri - o Kas - te - ro je - los - tüz
ge - ro Ma-ri - a Solt e - za - ri kan - po.

Mundüan malerusik

Mundüan malerusik hanitz bagirade,
bena ni bezan denik ezta ihur ere.
Nihaurren funtsetan nahiz izan jabe,
hamar urten galerak enetzat dirade.

Desertuko ihiziak, jentzen beldurrez
abisatzen dirade egoitera gordez.
Ni ere, hurak bezala, gaxua nigarrez,
ene bizi trixtia kuntserbi beharrez.

Hogei eta bi urtik bete egunin,
emazte bat hartu nin ene zorigaitzin;
erraiten ahal beitüt zereki zeitan jin,
ene urka büllhürra gorderik altzopin.

Herrikoia

Voice

Mun - dü - an ma - le - ru - sik ha - nitz ba - gi - ra - de, ___ be - na ni be - zan
de - nik ez - ta i - hur e - re. ___ Ni - ha - u - ren fun - tse - tan na - hiz i - zan ja - be, ___ ha -
mar ur - ten ga - le - rak e - ne - tzat di - ra - de. _____

The musical score is written on three staves in a single system. The first staff is labeled 'Voice' and contains the first line of lyrics. The second staff contains the second line of lyrics. The third staff contains the third line of lyrics. The music is in a 6/8 time signature and a key signature of one flat (B-flat). The lyrics are written below the notes, with some words split across lines. There are three blank lines (underscores) at the end of each line of lyrics, indicating where the music continues or where there is a pause.

Nere herriko neskatxa maite

Nere herriko neskatxa maite
ahozko lorez zaitut gaur laztantzen
itsaso garden, lur gozoko landare,
kresalaren usain, zeru kolore
nere bihotzaren taupaden hotsez
zure grazia dut kantatzen.

Bihotz minberen egunsentia
herri sufrituaren lamia
ipuin zaharren piper eta ezitia
erreka garbien kantu bitxia
udazken lizunez zaude jantzia
izar zerutarren irria.

Lanbro artetik itsas geldira
lehunki zoazen txori airosa
amodiozko sentipenaren hatsa
zure ezpainetan loratuz doa
goizeko ihintzetan belardi zera
eguzkitan zilar dizdira.

Benito Lertxundi

Voice

Ne - re he - ri - ko nes - ka - txa - mai - te, a - hoz - ko lo - rez
zai - tut gaur laz - tan - tzen. I - tsa - so gar - den, lur go - zo - ko lan - da - re, Kre -
sa - la - ren u - sain, ze - ru ko - lo - re ne - re bi - ho - tza - ren tau - pa - den
ho - tsez zu - re gra - zi - a dut kan - ta - tzen. Ne - re bi - ho - tza - ren
tau - pa - den ho - tsez zu - re gra - zi - a dut kan - ta - tzen.

Nere maitearentzat

Ume eder bat ikusi nuen
Donostiako kalean.
Hitz erditxo bat hari esan gabe
nola pasatu parean.
Gorputza zuen liraina eta
oinak zebiltzen aidean...
Politagorik ez det ikusi
nere begien aurrean.

Aingeru zuri paregabea,
Euskalerriko alaba,
usterik gabe zugana beti
nire bihotzak narama:
ikusi nahian beti hor nabil,
nire maitea, hau lana!...
Zoraturikan hemen naukazu
beti pensatzen zugana.

Galai gazteak galdetzen dute:
aingeru hori non dago?
Nere maitea nola deitzen dan
ez du inortxok jakingo.
Ez berak ere, ez luke nahiko,
konfiantza horretan nago.
Amoriodun bihotz hoberik
Euskalerrian ez dago.

Iparragirre

Voice

Ume e - der bat i - ku - si nu - en Do - nos - ti - a - ko ka - le - an. Hitz er -
di - txo bat ha - ri esan ga - be no - la pa - sa - tu pa - re - an. Gor - pu - tza zu - en li - rai -
na e - ta oin - ak ze - bil - tzen ai - de - an. Po - li - ta - go - rik ez det i - ku - si ne - re
be - gi - en au - rre - an. Po - li - ta - go - rik ez det i - ku - si ne - re be - gi - en au - rre - an. —

Nere ongile maiteari

Ez dakit nola eskerrak eman
a! nere ongile maiteak,
nere lurrera behar nau eraman
gaur zuen borondateak.
Egin dezute zer obra ona
aberats eta pobreak,
horra kunplitu agintzen duana
Jesukristoren legeak.

Nere onerako herriak dira
Buenos Airesen elkartu,
bide emanik Korreo espainolak
noblezaz zaio segitu;
harritzeko da, bai, gaur herriak
nola diraden argitu,
mundu guztian liberal onak
adiskideak baditu.

Bihotz oneko jaunak badira
lista dutenak edertzen,
zorioneko nere zahartzera
a! nola dute honratzen:
munduan bada zorionikan

andre onak du egiten,
gizonak izar horietan
zerua degu ikusten.

O! zu Romero Gimenes jauna
nire adiskide maitea,
zure bihotz onak konsolatu du
nere anima tristea;
egiak dira nere ametsak
mendietara juatea:
agur Romero, hau da neretzat
gozamentu eta pakea.

Agur zu ere Olaso jauna
bizkaitar prestu noblea,
beti betiko zure izena
bihotzean det gordea:
gaztetanik zait gusta biziki
medietako haizea,
agur banoa, nahi det ikusi
Euskal Herria maitea.

Iparragirre

Voice

The musical score is written in a single system with five staves. The first four staves are vocal lines with lyrics underneath. The fifth staff is a short instrumental piece. The key signature is one flat (B-flat) and the time signature is 6/8. The lyrics are in Basque and Spanish.

Ez da - kit no - la es - ke - rrak e - man a! ne - re on - gi - le mai - te - ak ne - re
lu - rre - ra be - har nau e - ra - man ga - ur zu - en bo - ron - da - te - ak e - gin de - zu - te ze o -
bra o - na a - be - rats e - ta po - bre - ak ho - rra kun - pli - tu a - gin - tzen dua - na Je - su -
kris - to - ren le - ge - ak. Ho - rra kun - pli - tu a - gin - tzen du - a - na Je - su - kris - to - ren le - ge -
ak.

Neskatxa ederra

Neskatxa ederra, begi zabala,
palazioko alaba,
nahi dun, baño eztun izanen
kaballerua senarra.
Amoriorik, amoriorik
baldin ezpada mudatzen,
egun bat ona seinalatu ta
biak esposa gaitezen.

Herrikoia

Voice

Neskatx e - de - rra, be - gi za - ba - la, pa - la - zio - ko a - la - ba, na - hi dun bai - no
ez dun i - za - nen ka - ba - lle - ru - a se - na - rra. A - mo - rio - rik a - mo - ri - o - rik bal - din ez
pa - da mu - da - tzen, e - gun bat o - na, se - fia - la - tu - ta Bi - ak es - po - sa gai - te - zen.

Prima eijerra

—Prima eijerra,
zutan fidaturik,
anitz bagira,
oro tronpaturik!
Enia zirenez, erradazu bai ala ez;
bestela
banua,
desertiala, nigarrez hurtzera.

—Desertiala,
juan nahi bazira,
arren zuaza,
oi, bena berhala!
Ez zitiala jin berritan nigana
bestela,
gogua,
doluturen zaizu, amoros gaixua.

—Nitan etsenplu
nahi dienak hartu,
ene malurak
parerik ez baitu.
Xarmangarri bat nik, bainian maitatu
fidatu
tronpatu!...
Sekula jagoiti, ikhusi ezpanu!

—Mintzo zirade
arrazoi gabetarik
eztukala nik
zure amodiorik;
zu beno lehenik banian besterik:
maiterik.
Fidelik
hor ez dereitzut egiten ogenik.

Herrikoia

Voice

Pri - ma ei - je - ra zu - tan fi - da - tu - rik, ha - nitz ba - gi - ra

o - ro tron - pa - tu - rik. E - ni - a zi - re - nez e - rra - da - zu bai a - la 'ez; bes - te -

la ba - nu - a de - ser - ti - a - la, ni - ga - rrez ur - tze - ra.

Solora ninoala

Solora ninoala,
solotik nentorrela,
laztana ikusi neban
bidean lo zetzala.
Eskutxoaz ukitu neutsan
hil ala bizia ete zan,
altzora zapart eustan
neuk gura ez nebala.

Hamabi kabelina,
larrosarikan бага,
geure ortuan bere
kabelinea bada.
Eskutxoaz ukitu neutsan
hil ala bizia ete zan,
altzora zapart eustan
neuk gura ez nebala.

Herrikoia

Voice



So-lo-ra ni - no - a - la, so-lo-tik nen - to - rre - la, laz-ta-nai-ku si ne__ban
bi-de-an lo__ze - tza - la. Es-ku-txo-a u - ku-tu neu-tsan hil a-la bi - zi - a e-te zan,
al - tzo - ra za - part eus - tan neuk gu - ra e - ne - ba - la.

Triste bizi naiz eta

Triste bizi naiz eta
hilko banintz hobe,
badauzkat bihotzian
zenbait atsekabe:
Dama bat maitatzen det
bainan haren jabe
sekulan izateko
esperantza gabe.

Nire bihotz gaixua
penatua dago,
ezin egon liteke
ai!, penatuago;
pasatzen ditudala
aspaldian nago
egunak triste eta
gauak tristeago.

Amorez eritua
zenbait denbora hontan,
gaurik ez det pasatzen
soseguzko lotan:
penaren kargarekin
urtuta, frankotan
kanpora irteten zait
bihotza malkotan!

Zein ote den ezinik
kontura erori,
zaiote askori;
kutizia jaioko
nik ordian ez diot
esango inori,
berak badaki eta
bastante det hori.

Ezin bizi zu gabe,
hau amorioa!
Logratzen ez bazaitut,
zer martirioa!
Ez badezu desio
nere erioa,
zuregan aurkitzen da
erremedioa.

Erregututzen dizut,
o Jesusen Ama,
nitaz kupi dadila
maite detan dama;
bihurtzen badidazu
bihotzera kalma,
kantaz banatuko det
milagruen fama.

Bilintx

Voice

Tris-te bi - zi naiz e - ta hil - ko ba - nintz ho - be, ba - dauz - kat bi - ho -
tzi - an zen - bait a - tse - ka - be: Da - ma bat mai - ta - tzen det bai - nan ha -
ren ja - be se - ku - lan i - za - te - ko es - pe - ran - tza ga - be.

Xarmengarria zira

Xarmengarria zira
eder eta gazte,
ene bihotzak ez du
zu baizikan maite
Bertze zenbait bezala
othe zira libre?
Zurekin ezkontzeaz
dudarik ez nuke.

Xuri-gorria zira,
arrosa bezala:
profetak ere dira
mintzo hola hola.
Arabera bazinu
gorphutza horrela,
iduriko zinuen....
zeruko izarra.

Oi maitea, zatozkit,
plazer duzunean,
nehork ikusi gabe,
ilhun-nabarrean;
Lagun bat badukezu

joaiteko bidean,
hark ezarriren zaitu
trankil bihotzean.

Plazer eginen duzu,
ixiltzen bazira
haur inorantak hola
tronpatzen baitira
ez da enetzat ina
holako segida...
bertzalde zure baithan
ez naiteke fida.

Adios beraz orai,
ene arraroa,
hori dela medio
herririk banoa;
bihotza triste eta
kexuan gogoia,
bethi jarraikiren zait
zure amodioa.

Herrikoia

Voice

Xar-men-ga-ri-a zi-ra, e-der e-ta gaz-te. E-ne bi-ho-tzak
ez du zu bai-zi-kan mai-te. Ber-tze zen-bait be-za-la o-te zi-ra li-bre? Zu-
re-kin ez-kon-tze - az du-da-rik ez nu-ke. Ber-tze zen-bait be-za-la o-te zi-ra li-
bre? Zu-re-kin ez-kon-tze az du-da-rik ez nu-ke.

Zugana Manuela

Zugana Manuela
nuanian pensatu,
uste det ninduela
deabruak tentatu,
ikusi bezin egin
naiz enamoratu,
ojala ez bazinan
sekulan agertu.

Amorioz beterik
esperantza gabe,
zergatik egin zinan
bihotz honen jabe:
zuk esan behar zenduben
hemendikan alde,
egiazki ez naiz ni
bizardunen zale.

Ahaztu nahi zaitut baina
ezin, ezin ahaztu,
zure amorioak
burua dit galdu...
Orain behar zenduke

bihotz hori bigundu,
eta maitagarri horrek
pixka bat lagundu.

Barkatu behar dituzu
nere erokeriak,
zure begira daude
nere bi begiak:
garbi garbi esan ditut
nere ustez egiak,
zoraturikan nauka
zure aurpegiak.

Gabian ibili naiz
guzizko ametsetan,
Donostian nengoela
Andre Marietan,
eta ikusi nuela
herri hartako plazan,
erdian zebilela
Manuelatxo dantzan.

Iparragirre

Voice

Zu-ga-na Ma-nu - e-la nua-ni-an pen-ta - tu us-te det nin-du - a - la
dea-bru-ak ten - ta - tu. I-ku-si be-zin e-gin naiz e-na-mo - ra - tu o-ja - la ez ba-
zi - nan se - ku - lan a - ger - tu.

Iturriak

AZKUE, Resurrección María de. *Cancionero popular vasco*. Bilbao: Euskaltzaindia, 1990.

Gure kantuak, 1. argit. Bilbao: Laybaru Ikastegia, 1991.

JOSE ANTONIO DE DONOSTIA (O.F.M. Cap.). *Obras completas del P. Donostia*. Vol. VI-VIII. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca; Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, 1994.

Katuen testamentua: umeen kantu eta jolasak. Bilbao: Labayru Ikastegia, 1993.

RIEZU, Jorge de (O.F.M. Cap.) (rec.). *Flor de canciones populares vascas*, 2ª ed. Donostia- San Sebastián: Sendoa, 1982.

SALLABERRY, Jean Dominique Julian (rec.). *Chants populaires du Pays Basque*. Nîmes: C. Lacour, 1992.

ZAVALA, Antonio (S.I.). *Bilintx, Indalecio Bizcarrondo 1831-1876: bizitza eta bertsoak = (vida y poesías)*. San Sebastián: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián-Donosti Aurrezki Kutxa, 1978.

Web-orriak

www.armiarma.com

www.basquepoetry.net/aurki/poemak.htm

www.buber.net

www.euskalnet.net/bukanero

www.euskomedia.org

www.geocities.com

www.habe.org

www.urretxu.net

www.ysursa.com

